

Burgeseria

Burges hitza **bur(u)g** germanikotik dator, etorri, eta berez «tontor», «muno» esan nahi bazuen ere, *gerrako babeslekuak adieraztera pasa zen; karolingiar denboran «gaztelu», Erdi Aroan zehar «gaztelu inguruko etxaldea» bihurtu zen, etxaldeotan azoka bat baitzegoen gazteluaren babesean, eta «azoka» esanahiaz sartu zen frantsesean (**bourg**), azoka inguruko jendeari geroxeago burges zeritzolarik: errementari, dendari, etabarrok sortu zuten, azoka inguruan, hiria (alemanez, **burger** = hiritar). Gutxi gorabehera «kale-tar» adina litzatekeen esanahi horrekin sartu da lehenengo euskaran ere burges hitza, Leizarragaren obran ageri denez (**burges**, **burgesia**, **burgessquide**, **burgu**, gaztelu, ere). Halere, hitzak frantsesean egungo esanahira eboluzionatu zuen eta esanahi berriarekin zabaldu da literatura moderno guztietara XVIII-XIX. mendetan, lehendik **burger** basekaran alemanera berriro ere itzuliz, euskarara, lehengoa galdu eta Leizarragarekin zerikusirik baterere gabe, bigarren aldiz sartua da, kanpotik, beraskoiztar kalbinistak (ik. KALBINISMOA) ez baitzuen euskal literaturan hitz hori itsatsi ahal izan. Burges hitzaren egungo usadioan, bere *eboluzio luzeak utzi dion ambiguitate guztia, nabari da: **hiriko**, **kaletar**, **hiritar**, adieraz dezake (arte, kultura burgesa: nekazal eta feudal kulturen kontrastez); **zibil** ere adieraz dezake (gizarte burgesa: hots, ez estatar eta ez gortelari); edo antiproletario, etab.

Egungo adieran burgeseria kontzeptu *proletalgoari kontrajarririk ulertzen da eta hor begiratu behar da haren esanahi sozio-politikoa.

Joxe Azurmendi

PROLETALGOA; IRAULTZA.

Burgo, Jaime del

Iruñean jaiotzen da 1912.eko Azaroaren 11n. Karlista (ik. KARLISMOA) eta tradizionalistekin (ik. TRADIZIONALISMOA) batera 1936.eko *gerraren antolaketan eskuhartzen duenetako bat da, eta gero gerran bertan, noski. Gerra ondoko Nafarroako goi-politikan itzal haundikoa gertatzen da honen izena eta, beste zen-

baiten artean, bera agertzen da azken denbora hauetakoa nafar *kazikismoaren *ordezkari garbientetako bat. Izan dituen kargu gorenek eman diote horretarako bidea: Iruñeko *udaletxean Teniente Alkate, Informazio eta Turismo *ordezkari, Espainiako Gorteetako *prokuradore, Mugimenduko Kontseilari Nazionala; gaur egun *UCDtik Gorteetarako diputatu. Gaurko politika parlamentarioan Nafarroa beste hiru euskal *probintzietatik bananduta edukitzearen alde sutsu burrukatzen du.

ERAKUNDE ESTATALAK EUSKAL HERRIAN; UCD; TRADIZIONALISMOA; FRANKISMOA.

Burgosko prozesua

proceso de Burgos/procès de Burgos

*ETAko 16 *ekinkide 31-69 delako Sumarisimoan militarki epaituak izan zireneko *prozesua. Prozesu hau 1970eko Abenduaren 3an hasi zen eta epaia 28an jakinerazi zuten: 9 heriotz eta 752 urtetako gartzelaldiak. Gertara horren itsuskeria zela eta, Europa guztia asaldatu baitzen, **han-hemen** egin ziren *manifestaldi eta protesta ugarietako esker, *Franco hiltzako kondenak barkatu beharrean aurkitu zen. Honela egin zuen Abenduaren 30ean.

ETA; EUSKAL NAZIONALISMOA.

Burokratizazioa

burocratización/bureaucratization

*Administrazioaren zerbitzuen *boteregehitzea, edo *erakunde batetan *funtzionarietako boterea eskuratzeari esaten zaio. *Bilakabide honen ondorio latzenak teknofaxismoa eta *Ekialdeko *gizarte blokeatuak (ik. BLOKEOA) izan daitezke.

BUROKRAZIA.

Burokrazia

Hitzaren zentzuari dagokionez, «bulegoen gobernu» dugu burokrazia; zehazki mintzatuz, *funtzionarien aparatu batek *boterea daukala esan nahi da. *Aparatu honen barnean, boteredunak ez dira hautatuak, goitik behera izendatuak baizik; gainera, guztiak *hierarkia ahaltu baten menpean daude. Horregatik, «bulegariaren gobernuak» herritarren *demokrazia eta parteidetasuna ukatzen ditu.

Gure gizarte industrial zentralizatuetan (ik. ZENTRALIZAZIOA), burokraziaren beharra defendatzen dutenek eragina eta